

## Elkartuko bagina

*Egunkaria*, 1990-12-30: 3.

Izenburuko hitzak ez dira nereak; Aita Patxi Altunari entzun nizkion 21ean Andoaingo udaletxean eman zuen hitzaldi ederrean. Larramendik orain ia hiru mende esandakoak dira: "Elkartuko bagina"...

Gaurko ere balio dute.

Eta zergatik ez ote gara euskaldunak elkartzen, beharrean aurkitzen garenean.

Argitu beharra dago, batetik, "elkartu" ez dela "batu". Batasuna, gure herrian zaila bada, bestetan ere hala da; zilegi da gizakien artean pertsona errespetatzea, bakoitzaren aburuak aintzakotzat hartzea. "Zenbat buru, hainbat aburu", gure esaera zaharretan geratu bada, ez da alferretan finkatu. Baina, bestalde, Larramendik erabili zuen aditza: "elkartu", zergatik ez gara elkartzen euskaldunok herriko kinka larriek inguratu eta estutzen gaituztenean?

*Elkartu* esan nahi du, bakoitzak beretik zerbait utzi, garrantzi nagusia duen beste zerbait hartu, eta estuasunak eskatzen duen behinbehineko erdibidea hartu, arazo larri bat konpontzeko.

Gauza ote gara honetarako?

Joera honen orde, gehienetan pertsonalkeria nagusitzen zaigu!

Nahitaezkoak gertatzen dira *keriak* gure artean; aitormen mingarria da; baina zergatik Herriak larriki eskatzen duenean ez gara gutako bakoitza gauza grinaren gainetik burua nagusitzen ahalegindu eta gero, ez lehenago, gure barruko zezena adarretatik hartu eta gero, gero!, bihotzari leku eragilea eta zabala emateko.

Ez edozertarako, aitaren etxea defendatzeko baino!

Herri zanpatua beste norbaitena den bezala, herri askea denon etxea bihurtzen baita.

Ez dugu Euskal Herriaren askatasuna nahiko estimatzen nonbait!

Gaur, esate baterako, European sartzeko kinka bereziaren bezpera bizi dugu. Gaia zehaztu genezake. Gero alderdi artekoak oztopatzen dituenak kamuztu, eta Euskal Herriak sakonean duen ikuspegi bateratsu bera, maitasun bera, gure herria bizirik eta tinko senti araziko duen oinarria finkatzen ahalegindu. Batetik, gure herria beti zanpatu duten Estatuen magaletik irten. Ez harrokeriarik, ez Estatuen errealtateaz ahaztuz, baina bestalde, gauza guztien gainetik Euskadiri dagokion duintasuna eta jarrera praktikoa finkatzen ahaleginduz.

Ezin dugu arazoa berriz ere gure askatasunaren arerio direnen altzoan utzi.

Irakurri ditut nire ikuspegi honekin bat ez datozen asmo batzu; eta fede onez idatziak, badakit, baina aldi berean pentsatuz Estatu ahaltsu hauek emango dizkiguten erremintak ez direla inoiz gure berjabetasunerako egokiak izango. Nork zainduko du orduan zaindaria?! Orain arte, gure Estatutuaren zaindarekin lotu gaituenak balaztarenak gehiago egin du azeleradorearenak baino. Ikus Gernikako Estatutoarekin

zer jarrera duten Madrilen: hamar urtean haiek bere legez agindutakoa bera ere ez dute bete.

Badirudi, bestalde, lortu ditugun eskubide zatiak ere hemengo morroi sozialistei zor dizkiegula, hauen esku zabalei. Euskararekin gauza bera: gure gazteleraganako diskriminazioak zaintzen badute nahiko lan! Zer jokotan sartu gara? ... Europaz ari ginen: nire ustez, sarreratik joan behar dugu herri bezala tinko Europako beste herrien kuraia helburu dugula.

Baina nola ibiliko gara Sabino Arana eta Jose Antonio Agirreren ezpiritutik hurbilago, abertzaleok osatutako Jaurlaritza bezala han aurpegi emanda, ala Espainiako Gobernuaren monagilo bezala?

Bai, gogorragoa da zuzeneko Herri-bidea, noski.

Baina duintasun handiagoa du herriko alderdien elkarreak, eta luzaroan, etekin hobea.

Zentzu hau eman diot Larramendik hil aurretik eskatzen zuen euskaldunen arteko elkartasunari.